

Goierritarra

325. zenbakia 2007ko uztailak 20

Niko Osinalde

GOIERRIKO TURISMOA AZTERGAI



Zeure argazki bat
poster bezela?

Fotoetxen egiten ditugu

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

*I. Fdez Ornaburu Dra.
 (Medikuntza estetikoan masterra)
 A. Ramirez Baigorri Dra.*

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA


ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN



Joseba Agirrezabala

Hondartza

Mendia eta hondartza dugu
guk urteroko zalantza
ustekabeen alde batera
joan da nere balantza
olatu gainen itsasoakin
nik egin nahi nuke dantza
deskonektatu ta lasaitzeko
lekua da ta hondartza

Eguzki eta izpi handirik
ez dugu espero aurten
aprobetxatu eguzki pixkat
ateratzen zaigun arten
joan aurretik aholkutxo bat
guzti guztietan aurren
probatu arte ez da jakiten
ze gauz ona izaten den

Doinua: "Oh baserritxo"

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbalde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56
943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

Goierritarra

diruz laguntzen duten
erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. **Iritzia:** Xabi Landa.
5. **Ingurugiro txokoa:** Oianguko
'terraza esekiak'.
6. **Euskara txukuntzen:** Denetik (II).
7. **Garai batean...:** Zeraingo
Larraondoko zerrategia.
8. **Errezeta:** Siglo XX tripakiak.
Aholkua: Uda zoriontsu baterako.
9. **Elkarrizketa:** Niko Osinalde,
Goiturreko arduraduna.
14. **Elkarrizketa:** Caritas, beharrea
daudenei lagunduz.
18. **Erreportajea:** Burrunbazale
txarangaren burrunba.
22. **Non zer.**
24. **Iragarki laburrak.**
26. **Argazki zaharra.**



EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Xabi Landa

Itsasondoko zundaketak agintarien jarreraren isla

Bertakoei egunonak eman gabe sartu zituzten makinak. Betiko metodoa erabili zuten horretarako; inongo baimenik eta abisurik gabe, egoera ilegalean, azkarrago, merkeago eta oztoporik gabe egin daitezke zundaketa lanak. Helburua lortzeko, gezurrak esateko aurpegi nahikoa eta Ertzaintzaren laguntza besterik ez da behar. Horixe da Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Trenbide Sarea delako erakunde publikoak egiten duena, herritarren oinarritzko eskubideen gaitetik, legearen aurka bada ere, beren interesak soilik diren lanak interes orokorren izarapean gorde.

AHTak ez ditu Euskal Herrian pairatzen dugun garraio-arazoa konponduko; ez du N1eko edo A8ko auto eta kamioien kopurua jaitsiko, ezta egunero egiten ditugun joan-etorriak garraio publikoan egiteko aukera emango ere. Nork hartuko du AHTa? Noiz erabiliko dugu herritarrok? Eusko Jaurlaritzak gure dirua xahutuz egin duen propaganda itzel eta nahasgarriaren ondorioz, herritar desinformatu askok trenez ibiltzea gustatzen zaiela eta, Ezkio-Itsasotik Donostiara edo Bilbora egun-pasa joateko asmoa agertzen du oraindik. Oinarritzko errentagarritasun ekonomiko eta sozialik izango ez duen azpiegitura erabiltzeko prezioak ordaintzeko haina diru izango dugulakoan al gaude? Ikerketa ekonomikoek diotenez, Donostiatik Bilbora egunero joan eta etorría egiten duten ikasle eta langileek ere ez dute erabiliko. Gainera, Madril-Sevilla AVEren neurritz kanpoko ustiapen kostuek

adierazi dutenez, eskaintzen diren garraiobideen artean, AHTa plaza/km-ko kostu ekonomiko altuena duena da.

“Tren” hau erabiltzeko asmoa duzun horrek, ba al dakizu zein kalte eragingo dituen? Ba al dakizu Gipuzkoan bakarrik 223 landa-ustiapen desagerraraziko dituela? Eta horietatik 45 Goierrikoak direla, besteak beste, 18 Ezkio-Itsason eta 6 Gabirian? Ba al dakizu zein desinformazio egoeran dituzten desjabetuak izango liratekeen lurjabe eta baserritarrak? Ba al dakizu “Euskal Y”aren Informazio Txostenak ohartarazten duenez, inpaktu akustikoa gogortzat jo behar dela ibilbide osoan zehar? Ba al dakizu Ordiziatik Itsasondora proiektatu duten 3 km-tako tuneleko 400.000 m² lur-soberakin Beasaingo Erauskin auzora eraman nahi dituztela? Eta tunel hori egiteko 3 urte aurreikusten dituztela? Eta Mariarats errekan heliportu bat egin nahi dutela? Eta Beasain-Legorreta zatian 6 tunel, 3 biaduktu eta 2 zubi egin nahi dituztela?

Azpiegituraren aurrekontua 9.000 milioi euro ingurukoa da eta Goierriin, erai-kuntza lanak gainean ditugula, pixkanaka obren aurrekontuak zeintzuk diren jakiten ari gara. Ba al zenekien, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean Beasain-Legorreta zatiko zundaketak egiteko lehiaketa argitaratu zela, “kasualitatez” Itsasondon zundaketak egiten hasi eta bi astera, eta lau hilabeteko lanen zenbatekoa 500.000 eurokoa dela? Eta zati hori egiteko 118 milioi eta erdi euro aurreikusten dituztela? Eta ba al dakizu nork ordainduko duen herritarrontzat inongo onurarik izango ez duen hori guztia? Orain pentsa ezazu, zenbateko aurrekontua du zure herriko Udalak? Eta Osasun Sailak? Eta Hezkuntzak?

Pasa den asteburuan Goierriko AHT Gelditu! Elkarlanak antolatutako topaketetan bildu ginenok argi dugu, AHTak irudikatzen duen injustizi sozialari aurre egin behar diogu. Eta zuk?

**AHTak ez ditu Euskal Herrian pairatzen
dugun garraio-arazoa konponduko;
ez du N1 edo A8ko auto eta kamioien
kopurua jaitsiko.**

	ARANDIA Garajea	N-1, z/g Iurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 88 09 47
	LADA Ssang Yong AUTOEN KONPONKETA	

San Inazio, 14 BEASAIN ☎ 943 889 390 Garagartza pl., 1 ORDIZIA ☎ 943 805 327 San Franzisko, 8 TOLOSA ☎ 943 650 239	
Lurrindegia eta opari gaiak	


Oianguko 'terraza esekiak'

Egun hauetan askoren ahotan dabil Oianguko Parkea. Golf zelaia eraikitzea dela eta ez dela, berri ugari iritsi zaizkigu goierritarren barrietara. Oianguko parkea flora eta faunan aberatsa izateaz gain, bertako geologia ere bitxia da.

Oianguko Parkean aurki daitekeen ezaugarri geologikorik nabarmenena 'terraza esekiak' dira. Gertaera hau bitxia da Euskal Erkidegoko Autonomia mailan. Arruntak dira Ebro ibaiari loturik agertzen diren honelako beste egiturak; dena dela gainerako lurraldean Otxandion (Araba) bakarrik aurkitzen dira mota honetako ibai lautadetako terrazak. Oiangukoa beraz, Gipuzkoan aurkitu den bakartakoa izan liteke.

Terraza hauen sorrera ibai estuki lotuta dago, nahiz eta gaur egun hauetatik urruti aurkitzen diren. Egitura hauek nola sortu ziren pentsatzeko milaka edo miloika urte batzuk atzera egin behar dugu. Garai hartan erliebeak ez zuen gaur egungoaren antzik, gaur egungo gure inguruko mendiek ez zutelarik oraindik egun ikusten zaien forma izango. Itsas maila bera ere altuago egongo zen gaur egungoarekin alderatzen badugu.

Ibaia eta honi lotzen zaion sare hidrografiko guztia erliebea higatzen hasten da bere itsasorako bidean. Uholdeen ondorioz, gaur egun gertatzen den bezala, ibai bere ibilbidetik irten eta inguruko lur eremuak estaltzen ditu, urak darman sedimentu karga (legarrak, harea, lohia eta buztina) eremu horietan utziz.



Uholde bakoitzean metatzen den material hau geruza horizontalak emanez pilatzen da ibai ertzetan, 'terraza' itxurako lautada bat sortuz.

Itsas mailak berriz ere behera egiten badu, ibaiak aurreko ibai lautada higatzen du. Honen ondorioz, bi altueratan dauden ibai lautadak sortzen dira: ibaiaren ibilbidearen altueran dagoena aktiboa izango da (uholdeetan sedimentuak pilatuko dira), baina 'terraza' zaharra aktiboa ez izatera pasatuko da, uholdeetan ibai ez baita iritsiko bertan materiala pilatzera. Prozesu hau behin eta berriz gerta daiteke, terraza anitz bata bestearen gainean pilatuz.

Oiangun aurkitzen den terraza esekia Oria ibaiaren sare hidrografikoak sorturiko lehen uholde lautadetakoa da. Terraza hauetan uholdeen ondorioz metaturiko sedimentu hauek Kuaternarioak dira (1,75 milioi urte baino gutxiago dituzte) eta hauen azpian aurkitzen diren arroken adina

berriz 110 milioi urte ingurukoa da (Kretazeoan eman zen Albiar garaioak). Gaur egun beste uholde lautadekin ez dute inongo loturarik erakusten, irla moduan agertzen direlarik, Kretazeoko arrokoz inguratutik. Hau higaduraren ondorioa da: garai batean Kretazeoko arroak guztiz estaltzen zuten inguruko terraza guztia higatu egin den bitartean, leku batzuetan higadurak ezin izan du dena desgaitu eta uholdeetako sedimentu hauek 'partxe' moduan geratzen dira. Ibaiek denboraren poderioz arroak higatzen du, malda handiagoak sortuz, eta beherago higatu ahala terraza hauek erlatiboki geroz eta altuago geratzen dira.

Gure inguruan arrunta ez den egitura geologikoa dugu Oianguko Parkean bertan. Dena dela, klima Atlantikoak eraginda begetazioak egitura hauek partzialki estali egin ditu eta ez da begi bistaz ikusteko horren erreza geratzen.

Arantxa Bodego

Oiangun aurkitzen den terraza esekia Oria ibaiaren sare hidrografikoak sorturiko lehen uholde lautadetakoa da.

JAKIN BEHARREKOAK

GAIA 2007 errausketaren alternatibentzako mundu mailako itunak, 3. nazioarteko bilera Hondarribian egingo dute. Irailak 15-18. herritarren mugimenduak duen garrantziarengatik aukeratu dute Hondarribia, Ekologistak Martxan izango da anfitrioi.

AHT Aurkako Akanpada Aramaion izango da aurturten, uztailaren 25tik abuztuaren 5era. Bertan hitzaldiak, musika eta abar izango dira. Informazio gehiago: 615715510. 9 posta kutxa, 48200 Durango, aht@sindominio.

Orculella Bulgarica maraskilo txikia, (desagerturik zegoela uste zena), Hoya de Guadix, Granadako herrian aurkitu dute. Bere fosilak ezagutzen ziren munduko hainbat lekutan. bizirik dauden ehun mila ale molusku 250m² azalera duen iturburutxoek osaturiko habitatan aurkitu dituzte. Lur hauen jabeak, aurkikuntza honen garrantziaz oharturik espeziea eta habitata babesteko programan sartu da.

Ozeano Artikokoan ustegabeko altxorra. Ur sakon hauetan bizi baldintzak oso gogorak izan arren, uste baino bioaniztasun handiagoa aurkitu dute ANDEEP izeneko proiektuko zientzialariak 1.400 espezie aurkitu dituzte, eta erdia deskribatu gabeko espezieak dira.

Denetik (II)

Maizpide
euskaltegia

Kaixo, lagunok! Aurreko zenbakian bezala, entsalada berezia izango dugu. Beraz, erne!

Parrafo/Paragrafo/Lerrokada:

✗ **Parrafo:** Euskaraz ez da batere txukuna!

✗ **Paragrafo:** Lege-testuetako artikuluen zati zenbakidunak izendatzeko erabiliko dugu.

✗ **Lerrokada:** Testu arruntetako lerro-multzoei buruz ari garenean.

Ospatu/Izan (egin)

Ez dakigu euskaldunok ospakizunak oso gustuko ditugulako izango den, baina kontua da **ospatu** aditza behar baino gehiagotan erabiltzen dugula!

Jaiak, ospakizunak... **ospatu** egiten dira; ez, ordea, topaketak, jardunaldiak, bilerak, lehiaketak, txapelketak... eta hiletak (Euskal Herrian, behintzat!) Horrelakoe-
tan erabil dezagun **egin** edo **izan**.

Merezi ote du
auto ziztrin honetan
aritzea?



Pena merezi/Merezi:

Euskaraz baditugu **merezi duten gauzak**, baina ez **pena merezi dutenak**. Adibideak:

✗ **Presaka ibili arren, ez du merezi errepidean zalapartaka ibiltzerik** (*ez du pena merezi).

✗ **Pelikula horrek merezi du ikustea** (*pena merezi du).

Gogoratu, bestalde, **merezi izan** aditza erabiltzen dugunean **-t(z)ea** erabili behar dugula... eta ez **-t(z)ea**.

✗ ***Ingelesa ikasteak merezi duela dio Miguel Sanzek** (**oker**).

✗ **Ingelesa ikastea merezi duela dio Miguel Sanzek** (**zuzen**).

Beraz, gure penak eta egoera penagarriak alde batera utzi... eta zuzen dezagun, behingoz, gaztelaniaren eraginez euskaldunok egiten dugun akats itsusia. Ez izan zalantzarik, **mereziko du eta!**

Min egin/Min eman:

Zenbat aldiz entzun ote dugu horrelakorik:

✗ ***Aizue, min eman didazue pilotarekin! Kontu bandiz ibili burrengoan! (oker).**

Horrela esan beharko genukeenean:

✗ **Aizue, min egin didazue pilotarekin! Kontu bandiz ibili burrengoan! (zuzen).**

Eta, noski, egiten den bezala... **hartu** ere egiten da:

✗ **Min hartu dut belaunean! (zuzen).**

Kontuz, ondorengo bezalakoak esaten ere abilezia badugu eta!

✗ ***Min egin naiz belaunean! (oker).**

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Merezi izaten du nekazari horrekin berriketan aritzeak. Ezin jatorragoa da!
2. Gaur bilera ospatuko dugu arratsaldeko seietan.
3. Oso testu polita idatzi duzu, Janire! Azkeneko lerrokadak zoragarriak iruditu zaizkit!
4. Min egiten dit Bush bezalako politikariak Albanian heroizat hartzeak!

OHARRA: Lehenengoan berriketan aritzea behar du; bigarrenean, berriz, eggingo dugu; azken biak zuzenak dira.

AGNES IRIGOYEN
PODOLOGA

Elkargo kide zbk 230

Astelehenetik
ostiralera:
9:30etik
18:00etara

Tel.: 943 086 925
Sanperio kalea, 5 ORDIZIA

RPS: 38/07

MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

AMEBI

**Erretegi bezala
zabalik**

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 943 16 25 23 LAZKAO



Zeraingo Larraondoko zerrategia

Denboran zehar, uraren indarrari erabilera ugari eman zaio Euskal Herrian, eta Zeraingo Larraondoko Baserrian ere, uraren indarraz baliatzen ziren zerrategiko lanak egiteko.

1890 urte inguruan eraikia, Larraondoko zerrategia Zeraingo mendietan jaio-tzen den Lasurtegi erreka-xtoko urez baliatzen da eta gaur egun ere eraiki zeneko ezaugarri eta berezitasunak

mantentzen ditu.

Zerrategiko lana Larraondoko baserriko biztanleek burutzen zuten, baserriko lanaren osagarri zelarik. Hori dela eta, negu-udaberri garaian lan egiten zen batez ere bertan; baserrian lanik gutxien eta erreka-xtoko ur gehien zekarrenean.

1960 urte inguruan utzi zioten Larraondoko zerrategia erabiltzeari. Geroztik erreka bazterrean iraun du isilean baina, oraindik ere, bere mekanismo zaharkituak lanean ikus daitezke.

Prozesua

Lasurtegi erreka-xtoko urak, aldaparo baten bitartez, zerrategira bideratu eta bi turbina eragiten ditu.

Turbina batek lan tresnak eragiteko balio du eta besteak zerrategi eta baserri-rako argi indarra sortzeko dinamoa. Turbinen bidez uraren indarra mugimendu bihurtuta, hiru uhelez balia-

tzen ziren zerrategiko tresna ezberdinak eragiteko. Lehenengo korreak, "linea" oso bat mugitzen du: tornua, zepiladora, daratulua eta sute-giari haizea emateko hauspoa. Bigarrenak, zerra zirkularra mugitzen du, eta hirugarrenak, enborretatik oholak egiteko balio zuen zinta-zerra. Lehen gaia, inguruetako basoetatik ekarritako zuhaitz enborrak, zerrategiaren kanpoaldean pirlatzen ziren eta zerrategira sartu eta lehen lan astunak egiteko karril bat zuten.

Oso garrantzitsua zuten uraren indarra ahalik eta gehien aprobetxatzea, aldaparoan bildutako urak ordu erdian bukatzen baitira. Horregatik lanak oso ondo antolatu behar izaten ziren eta erabili behar zituzten tresna eta behar zuten indarraren arabera, ur gutxiago edo gehiagori ematen zitzaion irteera.

Iturria: www.zerain.com





Maialen Zufiria
Siglo XX harategia
Ordizia

Osagaiak

- Tripakia
- Txorizoa
- Hirugiharra
- Tomatea

Lehendabizi, tripakia ondo garbitu, edukitzen duen sego guztia kenduz. Zati txikitant egin eta ozpin pixka batekin eta ur askorekin garbitu. Ura ondo kendu eta eltze-azkarrean jarri 35 minutuz, ur eta gatz pixka batekin.

Aparte, txorizoa eta hirugiharra frijitu.

Tripakiak egositakoan, txino batean jarri eta ur dezenterekin garbitu. Ura ondo kendutakoan, ontzi batean jarri, aurretik frijitutako txorizoa eta hirugiharra bota, tomate dezente, kaiena piperra (bakoitzaren arabera) eta gatz apur bat bota. Hau guztia ordu betean, xuabe-xuabe irakiten eduki.

Uda zorientsu baterako

AHOLKUA

Udako hilabeteetan eta aurretik, larruazalak behar duen prestakuntzak bere biziko garrantzia dauka, gehiegiengatik eta tenperatura altuengatik arazorik izan ez dezagun.

Tratamendu ezberdinak daude aukeran:

● **Aurpegiko tratamenduak:** udako eguraldiaren aurrean, aurpegiko larruazala hidratatzeaz eta nutritzeaz gain, exfoliatzea eta peelinga egitea egokia da. Baita ere, tratamendu drenatzaileak elastinaren sor-

kuntza estimulatzeko, eta larruazala gazteago mantentzeko eta eguzki gehiegiari, gatzari, kloroari eta abarri egoki aurre egiteko.

● **Gorputzeko peeling-a** gorputz osoko azala garbitzeko, inolako zikinkeriarik gabe uzteko. Horrela prest egongo da eguzki izpiak jasotako eta brontzeztatze hobea lortzeko, eta aldi berean, suabea eta tonifikatua egongo da.

● **Gorputzeko tratamendu hidratzaileak eta nutritiboak,** larruazalaren ka-

litatea hobetzeko eta tenperatura aldaketarako eta argi gehiegirako prestatzeko. Maila honetan lokatza, alga, olio esentzialen bilgarria, aparatologia... bezalako tratamenduak daude.

● **Brontzeztatze artifiziala,** azalean beltzaren kolore pixka bat eduki eta bainujantzia eta denboraldiko beste hainbat jantzi hobeto luzitzeko. UVA izpien aukeraz gain, DHA bezalako sustantzia naturalen pulberizazio teknika dago; fruituen azidoetan oinarritutako produktu da eta larruazalaren gainazalean eragiten du, azala ilunduz eta brontzeztatuz.

Beste aukera bat, gero eta arruntagoak direnak, aurpegiko eta gorputzeko autobrontzeztatuak dira.



Josune Eskisabel
Josune Estetika Zentroa
Ordizia

*Udako hilabeteetan eta aurretik,
larruazalak behar duen
prestakuntzak bere biziko
garrantzia dauka.*

PSIKOLOGI KLINIKOA

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

**Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak**

Zunzunegi
0inetakoak

Hirigoien, 8A LAZKAO
943 087 913

*Niko Osinalde,
Goiturreko
arduraduna:*

“Euskal Herriaren bihotza Goierri izango da laster”



Nekatuta aurkitu dugu Niko Osinalde. Kezkatuta ere bai. Turismo arloan urte asko daramazki ormaiztegiarrak eta kezka begiratzen dio Goierriko turismoari. 1993an Goierriko turismoaren aldekoa egin zuenetik, gauzak as-

ko aldatu dira Goierriin. Ostatuak, museoak... sortu dira. Aurrera egiteko, indarrak bateratzea eskatzen du Goiturreko arduradunak. Aldi berean, ehiakorrangoak izatea, kalitateari eta berrikuntzari garrantzia emanez.





ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



Iñauti

Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZEHU. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

Urtea nola doa, ze erreiskupen daukazue udari begira?

Ikusi egin behar. Aurten egongo den faktore garrantzitsuena, poltsikoa izango da. ETaren su-etena alde batera utzita, azkenean konprobatu baitugu, nahiz eta su-etetik ez egon, 2000. urtetik hona Euskadi mailan, eta Goierri, turismoak goranzko joera izan duela. Baina geroz eta diru gutxiago dagoela ikusten ari da. Nekazalturismo erakundearen ere ikusten da bestetan baino eskaera gutxiago dagoela, bidaiaria agentziek ez dira saltzen ari beharko luketen bezala, kotxeak ere ez dira saltzen... Euriborraren igoera denean ari da antzematen.

Dena den, eman dizkidaten datuen arabera, Goierri hobeto dago kostaldea-rekin alderatuz. Horrek esan nahi du, egia baldin bada poltsikoak hainbesteko eragina daukala, hemen erdi prezioan dauzkagula ostatuak. Nezalturismo Elkartek esaten du Goierri ondo doala.

Egia da, 2006. urtean inoiz izan den urterik onena izan zela. Iaz hala esan genuen, urte oso ona izan zela eta kostatuko zela hobetzea, nik uste dut aurten, mantentzea nahikoa izango dela. Dirudienez, mantendu ere ez dugu egingo, baina itxoin egin behar. Egia da, eguraldi lainotua aldeko faktore bat dela.

Aurten, faktore ezberdin bezala, Ruta Quetzal daukagu eta horrek ere eragina izango du publizitate aldetik. Bestelakoan ez dago inongo nobedaderik. Urda-netaren kontuarekin Filipinako jendea badator abuztuan. Bertako jendea ere pentsatzen dut, gutxiago aterako dela.

Hau guztia udari dago-kiona da baina balorazio bat egiteko garaian, urte guztia hartu behar da kontuan. Kasu horretan, igoera



bat badago. Euskadi barruan gero eta jende gehiago ari da mugitzen eta orain arte, erakunde askotatik promozioa kanpo aldera egin den bezala, nik uste dut kontuan hartu behar dugula, euskalduna bera datorrela gehien Goierriara. Udaberriko eta udazkeneko asteburuak behar den moduan saltzen ikasi behar dugu. Maiatza oso txarra izan da, ekaina pixka bat igotzen hasi da... Zubi aldetik, aurten oso gaizki dator egutegia. Ikusi egin behar. Urte guztiko zenbaketak garrantzia handiagoa dauka, udakoak baino.

Garbi dagoena, Goierri barruko mugimendua, kalitateko taldearekin antzematen dela.

Datuen arabera, Goierri gero eta garrantzitsuagoa den sektore ekonomikoa da turismoa.

% 4 izatetik % 7,6 izatera igo da. 7,6a baino gehiago

suposatzen du, euskaldunon irudia hemendik kanpo ematea baita. Nahiz eta asko ez suposatu Goierri mailan, erakundeek, politikoez, udaletxe mailan eta eskualde mailan 1993. urtean apustua egin baldin bazuten, 14 urte pasatu dira eta apustuak jarraitu egin behar du. Pixkanaka aurrera egin behar du. Goierri aitzindari izan da turismoan. Goitur da Euskadin ekimen pribatua eta publikoa elkartzen duena, Goitur da duela 10 urte promozio lana egiten hasi zen. 1996-97 urtean Eusko Jaurlaritza joaten zenean edozein azoketara, Donostia, Bilbo, Gasteiz, Hondarribi, Zarautz eta Goierri joaten ziren. Orain 53 joaten gara. Lehiakortasunean beti aurreratzen ari gara. Pribatua horren aldeko apustua egiten ari da. Nahiz eta zenbakitan 7,6 izan, nik uste dut beste bultzada bat eman behar zaio-

la. Dauden giza eta ekonomikoko errekursoekin ahal dena egin da, eta nik uste dut momentu honetan, 'stand by' egoera batean gaudela eta 'stand by' horrek esan nahi du, besteak ez daudela lo eta besteak lo ez daudenez, mugitu egin behar garela. Eta mugitzeak esan nahi du, geroz eta lehiakorragoak izan behar dugula, mundu guztiak berdina eskaintzen dugu eta lehiakorrak izateko pentsatu behar dugu zer daukagun eta nola saldu hobeto eta mezu hau zenbat eta leku gehiagotara nola iritsi.

Ni kezkatuta nago. 10 urte daramazkit lan honetan, 22 urte turismo munduan, eta kezkatuta nago. Gauza asko egin dira eta zenbait puztu egingo litzateke. Baina ni alderantziz nago, autokonplazentzia hori ez dago nire eskeman. Gauza asko egin dira, sekulako apustua egin dute udalek, harrigarria da Goierriko udalek egin duten apustua, zenbat diru sartu duten museoetan! Azken batean museo bat da, zure herriko nortasuna adieraztea. Beste inon ez da gertatu. Pribatuak horren baitan, apustua egin du, eskualde bat egiten ari den lanari babes bezala ikusten duelako.

Kezkatuta nago momentu honetako
**Goierriko turismoaz. Gauzak asko eta
ondo egin dira, baina espabilatu
beharrean gaude.**

Zerk kezkatzen zaitu?


Goierrrik ez dauka ikonorik. Goierrrik ez dauka ez Arantzazurik, ez Loiolarik, ez Balentziagarik, ez Arrikutzik, ez Ekainik, ez Arditurri, ez Leitzaran... Udalerri bakoitzak egindako apustuak modu bateratu batean saldu behar dira. Jakin behar dugu Goierrri Euskal Herriko turismoan posizionatzen, eta Europako turismoan ere bai. Momentu honetan esnatu beharrean gaude. Ehuneko ehun lehiakortasuna, zero autokonplazentzia. Gauzak ondo egin dira, nik ezin dut beharbada hori esan, baina Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundia, Udalleteak, gustura daude Goiturrek egin duen lanarekin, eta orain arte ondo sentitu naiz. Segitzeko animo askorik ez daukat baina ikusten dut badagoela oraindik zerbait egiteko, eta horregatik duda horretan nago, baina orain beste pauso bat eman behar dugu. Guk ez daukagu ikonorik.

Nik ikusten dut, eta esaten badute ondo egin dela, 10 urteotan ibilbide bat egin dela. Baina ibilbide horrek beste zerbait eskatzen du. Eta beharbada ez hainbeste inbertsio aldetik. Garbi dagoena da hainbeste milioi sartutako apustu horrekin, promozioari indar berezia eman behar zaiola, eta promozioa da lan bateratu bat egitea. Lan bateratua da, gestia bakar bat museo guztiekin, berrikuntza eta kalitateko gai horiei bultzada eman behar zaie.

Ondo ikusten dut orain arte Goierrrik egin duena, baina kezkatuta, oso kezkatuta momentuko egoeraz, beharbada ni horrelakoa naizelako.

Nahiz eta ikonorik ez izan, eskualde bezala, beste inork baino izen gehiago dauka.

10 urte daramatzagu, web orria nahiko ona daukagu, bost hizkuntzatan, gauzak egin dira... baina, ni horre-



Kalitatearen ikurra

Kalitate ikurra jaso dute Goiturreko hainbat bazkidek. Zer eragin izango du?

Batetik, dohainik den publizitatea da. Euskadi mailatik, teknoturismoa jasotzen ari gara. Beste lurraldeetan kalitate maila nola landu dugun jakin nahi badute, Goierrira etorri behar dute. Taldeak etortzen ari dira eta hori antzematen da.

Kalitatea egin duten establezimendu horien artean, nobedade bat da, dohaineko publizitatea da. Ikurra lortu dutenak oso gustura daude, oihartzun handia izan zuen Igar-tzan egin zen Galak. Bigarren talde batean, 8-10 establezimendu espero nituen eta 23 daude. Horrek esan nahi du jendeak ondo hartu duela.

Nik uste dut, Q turistikoaren aurreko pauso bat dela, beharrezkoa da. Orain borondatezkoa zerbait den bezala, urte gutxira derrigorrezkoa izango da eta zenbat eta lehenago hasi, orduan eta hobeto. Momentu honetan, Goiturreko bazkide diren % 90ak kalitateko ikurra izango dute urtea bukatzerako. Pasteleriek eta zenbait motatako establezimenduk ezin dute egin, araurik ez dagoelako.

Lehiakortasun horretan, beste puntu bat da, baina oso garrantzitsua. Azken batean, Euskadi mailan denok berdina saltzen dugu: gastronomia, parke naturalak, museoak... ezberdintzeko zerbait baldin badago, kalitatea eta berrikuntza dira. Establezimenduek ikusten dute beraien negozioetarako probetxugarria dela eta beraiek oso gustura daude.

lakoa naiz. Momentu bat iritsi da, hau badaukagu, baina orain inbertsio bat egin behar da promozioan. Udalekin ni zerbaitetan kritiko baldin banaiz da, garbi utzita sekulako inbertsioa eta apustua egin dutela, promoziorako diru gehiago ez bideratzea. Haurdun dagoen emakume bat bezala turismoa. Haurdun zaudenean, bederatzi hilabete zurea da sentimentua, aldamenen egongo da galdezka zer moduz zaude, zein izen jarriko diozun... hori museoak egitea dira. Subentzioak lortu dira, alkatea mugitu da eta egin dugu. Umea jaio-tzen denean, sailburua eto-

rriko da zinta moztera. Gero hasiko dira, pardedak, sehaska, arropa, lanean hasitakoan norekin utziko du-dan umea... gauza asko hasten dira bederatzi hila-betik aurrera. Turismoan berdina da. Turismoa museo bat inauguratzea da baina horretaz norbait arduratzea ere bai. Horrekin nago kezkatuta.

Batasuna eta inplikazioa eskatzen dituzu beraz.

Ondo hasi ginen gauzak egiten eta nik uste dut gauzak ondo daudela. Azken finean, Goierrin bi enpresa daude museo guztiak kudeatzen dituztenak, normala den bezala, enpresa bako-

tzak bere politika dauka, norberak berea saltzen du, momentu honetan uste dute enpresa bakar bat eharko genukeela Goierriko museo guztiak saltzeko.

Oso kezkatuta nago, Goierriren zein irudi ematen den Goierritik kanpo. Ni Lekeitioko Ikastolako zuzendaria baldin banaiz eta Goierriko zortzi museo-en zortzi foileto iristen baldin bazaizkit, mapa hartu eta denak leku berean daudela ikusiko du. Zer hasi behar da, batera eta bestera deitzen? Askotan gainera telefono zenbaki berdinerari deituta? Nik uste dut pakete batean saldu beharra dago-



Oianguko proiektua

Hamar urteotan, ostatu aldetik, ohe kopuru handiagoa dago Goierriin. Momentu honetan zenbat ohe daude?

Aterpetxeak kontutan hartuta, 850 ohe ditugu. Orain dela hamar urte, 200 bat izango ziren. Salto handia eman da aurreko 2 urteetan. Orain ikusi egin behar. Donostia asko galtzen ari da eta Madrildik datorren batentzat, Goierri kosta da. Berdin zaio Donostian edo hemen lo egin. Hortik etor daitekeen jendea ere etorri daiteke. Errekurtso gehiago izan ditzakegu, baina askoz gehiago igo daiteke? Ez dakit. Zenbakiak esaten dute, milatik gora beharko genituzkeela.

Ostatuei lotuta, Oianguko proiektua dago. Eztabaida ugari sortu du gaiak. Nola ikusten duzu proiektua?

Inoiz ez dut hitz egin eta badaukat gogoia Oiangu buruz hitz egiteko. Nik argi daukat, Oiangu Publikoa eta Bizirik nahi dudala. Maiuskulaz. Publikoa izaten jarraituko duelako, ibiltzeko ibilbideak egongo dira, igerileku bat, edonor joan daiteke, orain arte bezala jarraituko du. Eta bizirik, orain sasiak-eta dauden lekuan, beste aktibitate bat egongo delako. Ikuspegi turistikoa ematen sartzen naiz ni bakarrik. Ni ez naiz sartzen prozesu guztia ondo eraman den edo ez esaten. Ni ez naiz promotorea eta gai honetaz, duela bi urte udaletxean egin zen aurkezpenean, behin bakarrik hitz egin dut publikoan. Turismo bezala ikusten dut garrantzitsua dela, beste zerbait, ezberdina, beste leku batzutan egin den bezala. Golfeari jokatzera doazen goierritar asko, hemen geldituko da.

Golfaren proiektua dago bakarrik, beste proiekturen bat egongo balitz, ikusi egin beharko litzateke. Proiektu bakarra aurkeztu da, ni ez naiz sartzen, eta garbi gelditu dadila, ondo eraman den ala ez. Ni kezkatzen nauena da, momentu honetan, eraikuntzak daukan erabilera. Ingurune pribilegiatuan dago eta hor 20 gela edukitzeak ez du inongo arazorik sortzen. Gehiago oraindik, edifizio publikoa da eta hor etekina lortu behar da.

Nire kontra sei-zazpi artikulua idatzi dira. Oso kuriozoso da, idazten duten horiek, 'demokrazia', 'herriaren hitza errespetatu' diote, eta nirekin ez du inork ere hitz egin. Desiatzen nago, eta ea hau irakurtzen dutenean hurrengo egunean deitzen didaten. Oiangu Plataforma ez da nirekin harremanetan jarri. Inork ez dit deitu jakiteko zein den nire iritzia. Turismo eskusiboa, Goierri eskusiboa esaten ari dira. Hortik atzera dator nik uste dut dena. Donostiako komunikabide batetik elkarrizketa egin zidaten euskaraz, Goierriko alojamentuek. Nik esan nien hemendik bi urtera proiektu berriak daudela. Hotelekin gertatzen da, zenbat eta ezberdinagoak izan, zenbat eta balio erantsi gehiago eman, orduan eta konpetentzia gutxiago eta esparru handiago bat hartzeko modua. Euskaraz esan nuen, telefonoz, zein da balio erantsi hori? Beasaingo Dolarea 4 izarretako hotela izango dela. Gipuzkoa barnealdean ez dago 4 izarretako hotelik eta hark badauka bere balio erantsia. Eta Oiangu, nahiz eta 2-3 izarretako hotela izan, ingurune pribilegiatu batean egonda, deskuido batean golf egiten baldin bada, beste aktibitate bat gehiago dauka eta balio erantsia hori da. Hemengo kazetari batek, erdaraz, balio erantsia, turismo eskusibo bezala itzuli zuen. Proiektuan 2 izarretako hotel bezala azaltzen da eta ni ari naiz borrokatzen 3 izarrekoa izan dadin. Hirukoa izateko, bi logela kendu behar dira, pasiloak zabalagoak egin... Hori esanda ere, 5 izarretakoa eta luxozkoa izango dela esaten ari dira.

Oianguko kasuan ez naiz polemika horretan sartuko. Alojamentu aldetik garrantzitsua iruditzen zait, Ordiziak ez daukalako alojamenturik. Golf? Proiektu hori hor dago, beste inor ez da aurkeztu, udalak ikusiko du zer egiten duen horrekin.

Nik errespetatzea eskatzen dut. Lehenengo, nire izena edozein lekutan ez jartzea; eta golfaren aldeko amorratua izango banintz ere, eskubidea edukiko dut ba hori esateko, beraiek eskubidea daukaten bezala. Harrituta nago, niregana ez dira etorri, ez didate ezer galdetu. Orduan nola da posible horrelako gauzak jartzea zein iritzi daukadan jakin gabe? Are gehiago, harrituta geldituko liriteke ze iritzi daukadan jakinda.

ela. Hori da minimo bat.

Beste minimo bat da, gastatu dugunaren promozioa egin behar dugula. Eta hirugarrena zein da? Orain arte pentsatu izan dugun bezala, turismoa ez dela publizitatea bakarrik, lehiakorragoa izatea baizik. Lehiakorragoa izatea da ere bada, kalitatea, berrikuntza ere badira. Zer gertatzen da? Ni orain dela hamar urte, proiektua egiteko nengoen eta orain, promozioa, komertzializazioa, dinamizazioa, antolakuntza... egiteko nago. Egiten eta egiten joan gara, baina orain beharbada salto bat eman beharko dugu.

Nik uste dut gastronomiaren inguruan Goierriko salto bat eman behar duela. Nik uste dut Euskal Herriko bihotza Goierri dela, Euskal Herriko nortasuna Goierriin ikus daiteke dauden museo, gastronomia eta dauden natur baliabideekin eta horri nolabait heldu behar diogu. Horrek eskatzen du denon arteko apustua, ez politikoa bakarrik. Diru gehiago jarri beharko da.

Etorkizunari begira jarri etaa 2007-2010 Lehiakortasun plana egin duzue.

Nik uste dut noizean behin geldialdi txiki bat egin behar dela. Geldialdi txiki horretan, garbi daukagu, prospekzioa egin behar dela. Momentu honetan ikusita kezka hori hor dagoela, edo nik behintzat badaukadala kezka serio bat Goierriko turismoari buruz, baita Gipuzkoa eta Euskadikoari buruz ere. 'Goierriko lehiakortasun turistikorako egitasmoa 2007-2010' egin dugu. Goierriin dauden museoekin, zerbitzu turistikorako enpresekin eta Goimenekin elkarlanean egin dugu. Gure artean adostutako plana da. Goierriko egitura politikoa osatzen denean bertan aurkeztuko da. Momentu honetan lane-rako barneko tresna bat da. Ildo nagusia zehaztuta da-

go, promozioa, komertzializazioa, antolakuntza, dinamizazioa, berrikuntza, kalitatea eta profesionalizazioa. 2008. urterako plana eginda dago eta ekintza plan bat egin daude, eta urtero joango gara egiten. Hau funtsezkoa da.

Derrigorrezkoa da jakitea 2010-2011. urtean Goierriko turismoa non ikusi nahi dugun. Hau da, Goierri nola nahi dugun posizionatzea Euskal Herrian, Estatu mailan eta Europa mailan. Orain arte bezala, guztiak ez du balio. Ikusi beharko dugu zeintzuk diren gure nitxoak, ze produktu desberdin dauzkagun (natur produktuak, produktu kulturalak eta produktu gastronomikoak), zein norabide-tan joan nahi dugun, eta nahiz eta dena batera saldu, nola izan gaitezkeen beste-engandik ezberdinak. Eta ezberdinak izateko, besteek egiten ez dituzten gauzak egin behar dira. Kalitatea inork ez du egin, ba guk egin dugu. Berrikuntza inork ez du, ba guk egingo dugu. Interneten bidez salduko diren pakete turistiko batzuk egingo dira.

Zein izango litzateke turismo ideala?

Goierri eta Euskadin egiten diren inkesta guztietan azaltzen den bezala, gu nazio bat gara nazio baten barruan. Herri bat gara. Hona datorrena euskal nortasunari, euskaldun errekurtsoei, euskaldun idiosinkrasia ezagutzera dator. Toki gutxian gauza asko ditugu, ekoturismo deitzen zaion horretan sartuko nuke Goierri. Ez da Brasilen, Ekuadorren edo Bolivian egiten ari diren ekoturismoaren berdina. Nik uste dut hori baino askoz ere espezializatuagoak gaudela. Gutxiago kontaminatzen dugu. Txilera joatea maputxeak museoko pieza bat bezala ikustera, nik uste dut, euskaldunok, bizirik gauden herri bat garela, eta jendea euskaldunak zer ga-



ren ezagutzera dator. Jendea euskaraz hitz egiten ikusi nahi dute, museoak ikusi nahi dituzte, gastronomia... Euskadik hori guztia eskaintzen baldin badu, Goierriker zer esanik ez. Gastronomia mailan, gazta, Ordiziako azoka, mondejua, odolkia, parke naturalak, museoak... Gurea ekoturismo bat da eta nik argi daukat, zerbait berria egiteko-tan, aldameneko eskualdeekin lankidetzat handiagoa suspertu behar dugu. Hemendik denbora gutxira, 2008an ere bai, Euskadiko nortasuna gu izango gara. Marka hori erabili ahal izango dugu. Euskal Herriko bihotza Goierri izango da.

Kezkati nagoela esan dut behin baino gehiagotan, baina kezka horren gainetik, lanean jarraitzea animatzen nauena gauza bakarra hori da: Euskal Herriko nortasuna bultzatzea.

Zer hobetuko zenuke, zer dago faltan?

Gauzak ondo egin direla uste dut. Nik uste dut erre-kurtso ekonomiko aldetik, politikoei erabaki beharko dute eskualde mailan industriaren alde, giza arloaren alde egin duten bezala, turismoarekin zer nahi duten garbi esatea. Turismoa gaizki ulertzen dugu batzutan. Turismoa da, gure nortasuna saltzea. Turismoa ez da kanpoko jendea bakarrik etortzea. Turismoa da baita ere, Ordiziako bat Zeraina joatea. Barne turismoa da hori. Bizkaiko bat etortzea... Niretzat turismoa, etxetik kanpora gau bat pasatzen denean da. Baina hori egin behar da, turismo hori bultzatu. Turismoak duen balioa da, gu zer garen adieraztea. Beraz, udal-letxe bakoitzak egin duen apustua kontuan izanda, hotsa atera behar da.

Turismoak bi gauza dauzka irudi aldetik: bate-tik, promozioa, eta promozioa da azaltzen ez dena ez

dela existitzen; dirua sartzen ez baldin bada eta hotsa ateratzen ez baldin badugu, ez gara inor.

Bigarren, komertzializazioa da. Turista non dagoen, hara joan behar da. Orain adibidez, irailean, Diputazioaren aurrean karpabat jarri behar dugu, zinemaldia izango da. Eroski bidaia-ekin pakete batzuk egin behar ditugu... Saldu ahal izateko kalitatea eskatzen duela, ba egin. Turistak ez dira hemendik pasatzen. Zegamatik eta Ataundik ez da pasatzen, joan egin behar da. Idiazabalen duela bi urtera arte, asteburuetan ezin zen gaztarik erosi, orain bai, museoari esker. Eta hori txarra da? Hori turismoa da? Hori da gu zer garen adieraztea.

Eskertuko nuke turismoaren aldeko apustua. Hori bai, lehenengo eta behin, eskerrak eman, ente publikoari eta pribatuari, sekulako lana egin dutelako. Baina ezin dugu lo hartu. Pizkanaka jarraitu behar dugu. Gauza batzuk erre-kurtso ekonomikoak eskatuko ditu eta beste batzutan ados jartzea izango da.

Turismoa, gure nortasuna saltzea da,
gu zer garen adieraztea.



Caritas

Beharrean daudenei lagunduz

Guztiok, besteentzat lan egiteko tartetxo bat hartu beharko genukeela diote Ordiziako Caritaseko Jose Manuel Otegik eta Maritxu Odriozolak. Horrelaxe daramazkite urteak eta urteak bi ordiziarrek, Caritasen barnean, gu-

txiena daukatenari ahal duten neurrian, laguntza ematen. Nahi adina ez, mugatuta daudelako, baina poztasun handiko lana dela diote. Azkenaldian, etorkinekin lan ugari egiten ari dira. Ordiziaren eta Goierriren argazkitxoak egin digute.

berriz

Kale Nagusia, 8
BEASAIN

Hondarribi, 25
Hondarribi, 30
DONOSTIA



ZEGAMA

OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala

Intxausti eremua, 14G-14H nabeak

☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda denda, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

Gipuzkoako Elizaren erakundea da Caritas. Elizak, Caritasen bitartez, "behartsuenekin karitatea bizitzen du". Caritas zerbitzu bat baino zerbitzu gehiago da. Caritasen esanetan, "gure hartzaileak gizarteko pertsona, talde nahiz komunitate baztertuak, behartsuak eta ahulak dira, baita gizarteko pobretuak ere. Berezi ki, horien arteko azkenak: aterperik gabekoak, etorkinak, ijitoak; drogaren, hiesaren, Alzheimerren edo buruko gaitzen eragina jasaten dutenak; ama bakarrik, baztertzeko handia jasaten duten emakumeak baitira; familia behartsuak; adinekoak; gizartean edo lan munduan sartzeko zailtasunak dituzten gazteak".

"Behartsuen aldeko aukera egitea kristau elkartearen konpromisoa eta testigantza moduan ulertzen dugu. Horregatik, gure baliabideak ez dira ekonomikoak bakarrik: harrera egitea, hurbiltasuna, bertan egotea, entzutea, elkarbanatzea, elkartasuna, errukia eta pobretuenganako maitasuna ere gure baliabideak dira", azpimarratu du Caritasak.

Caritasera jotzen duenak "pertsona eta hiritar moduan bereak diren eskubideak gauzatzeko aukera izatea. Caritasak justizia eta elkartasuna garatu nahi du".

Caritasen helburuak betetzen, Goierriko hainbat herritan, goierritar ugari da lanean. Horieta bi lagun dira Jose Manuel Otegi eta Maritxu Odriozola ordiziarrak. Caritasen urte asko daramazkete lanean. Mila istorioren lekuko dira.

Zuek jubilatuta baina oraindik ere lanean lanean jarraitzen duzue...

Otegi: Denbora pasa. Guk egiten dugun hau polita da eta egia esango banu hauxe egingo nuke: 50 urtetik gorako jendea hartu, ostegunero etorri, ikusi eta ikusita-koarekin pentsatu eta gero erabaki. Jendea oso ondo



Goierriko Caritas

Idiazabal, Lazkao, Legorreta, Ordizia, Beasain, Ormaiztegi, Zaldibia, Arama, Ataun, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Itsasondo, Mutiloa, Segura eta Zegama daude Caritaseko taldeak. Hileko azkeneko asteazkenean, Beasainen biltzen dira. "Herri guztietan arazo berdintsuak daude baina arazo berezirik sortu bada, denon artean laguntzen saiatzen gara. Arazo handia bat baldin badago, herri batek bakarrik beharbada ezin dio aurre egin eta denon artean zerbitzu egiteko aukera ematen du", zehaztu du Jose Manuel Otegi.

bizi da eta jendeak ez daki gizartean ze arazo dagoen.

Gero eta etorkin gehiagodator Goierri. Caritasen ere antzeman al duzue?

Jose Manuel Otegi: Etxebizitza, lana eta paperak dituzte helburu atzeritik datozenak. Guregana hona etortzen direnak, zoritxarrez, ez dira onenak, zubi azpian-eta bizitakoak. Konpontzeko oso zaila den arazoa da guretzat.

Maritxu Odriozola: Janaria eta arropa edukitzen dugu behar dutenei emateko. Eta diru bat ere bai. Eta entzun ere bai. Entzuten denbora asko pasatzen dugu. Baina orain gauza bat badaukagu,

lehen garai batean udaletxeetan ez zegoen gizarte laguntzailerik, orain gehiena hortik bideratzen da.

Otegi: Hona etorkin bat etortzen denean, guk ez dakigu zein den. Entzun egiten diogu eta entzun ondoren laguntzeko aukerarik baldin badaukagu, lagundu. Gizarte laguntzaileari kontsultatu gabe guk ez dugu pautarik ematen.

Odriozola: Paperik gabe daudenak askotan beldurra edukitzen dute udaletxera joateko.

Otegi: Gaur egun gehienak lan eske etortzen dira, baina gaur egun non dago lana? Lehen kanpotik etortzen ziren emakume asko etxee-

tan, garbiketak, adinekoak zaintzen.. aritzen ziren. Gaur egun saturatu egin da hori.

Nondik lortzen duzue behar dutenei emateko dirua?

Otegi: Entzun eta gero, laguntza. Baina pentsa gure laguntza izaten dela, Elizara joaten direnak elizan botatako dirua. Guk ez daukagu inongo dirulaguntzarik. Eli- zan botatzen den dirutik jaso eta hori administratzen dugu.

Ordizian 9.000 gara eta asko jota, 900 joango gara elizara. Diru asko ematen da Ordiziako parrokiari, baina urtean bi alditan biltzen da Caritasentzako dirua, eta bitan jasotzen denarekin ezin gara iritsi. Orain partxeatu egiten dugu, mugatuta gaude.

Odriozola: Elizan biltzen den dirua asko jaitsi da, euroa sartu denetik. Lehen Caritasak lan gehiago egiten

Janaria, arropa eta dirua banatzen ditugu, baina jendeak hitz egiteko beharra dauka



**Goierriko
Plataforma
Sozialak
deituta,
bilkura egin
zuten
Donostian,
Gipuzkoako
Foru
Aldundiaren
aurrian.**

Alarguntzako pentsioa

Goierriko Platarforma Sozialeko partaide da Caritas, Urola Garaiko eta Goierriko jubilatutako txeeek, emakume elkarteek, Nagusilane eta Esperientziaren Eskolako ikasle ohien elkartearekin (Gueske) batera. 65 urtez gorako enbretiro txikienak osatzea eta etxebizitzaren egoera hobetzea eskatzen dute. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan

izan dira baina orain arte ez dute helburua lortu. "Ikusi egin behar Diputazio honetan zein jartzen den. Entzun dugu, EAJ-k sail batzuk hartu behar dituela eta EA-k beste batzuk. Lehen EAren esku zegoen, Mari Karmen Marinekin egon gara beti. Beraz, aldaketa gutxi espero dugu. Baina segi egingo dugu. Guk bi gauza lortu nahi genituen: etxebizitza duin bat edukitzea, desastrekoak dauzkate-eta, eta pentsioa. Orain zain gaude, lege berria ere atera behar dute, eta onerako izango dela dirudi".

zuen, diru gehiago ere bazuen. Gaur egun abantaila handia dago, udalak ematen dituela laguntzak.

Eskerrak gizarte laguntzaileari. Orain dela 40 urte bezala izan balitz, hau ez litzateke posible izango.

Otegi: Ordiziako bailaran, Legorretatik Zegamaraino, 35.000 euro banatu genituen 2006. urtean. Beste eskualde guztietan askoz ere gehiago gastatu zuten. Gu leku pribilejiatuan bizi garela esan nahi du horrek. Goierri ez dago langabeziarik, gazte jende falta dago lanerako...

Odriozola: Pertsona askok pentsatzen du Caritasek egiten duena diru bat ematea dela. Baina jendeak bere arazoak kontatzeko, hitz egiteko beharra dauka. Horretan denbora asko pasatzen da. Ez zuteko beharra dago.

Zein egoeretan ikusten dituzue etorkinak?

Otegi: Etorkinetan, batzuk askoz ere onartuagoak daude. Ekialdeko jendea adibidez, Amerika aldekoak baino onartuagoak daude. Eta

marokoarrak eta argeliarrak berri, oso gaizki daude ikusita. Errumaniarrak bi mota daude: langileak eta eskaleak. Errumaniako ijituak dira horiek.

Neguan zubiazpian lotan ere ikusten dira...

Odriozola: Hemen bertako jendea ere egon da, inork etxerik eman nahi ez ziolako, kalean lotan. Orain badauka etxe bat, baina kostata. Jendeak ez die etxerik alokatu nahi atzerritarrei. Arazo handiak daude horretan.

Otegi: Marokoarrak edo argeliarrak baldin badira oraindik gutxiago. Besteei aurpegi txarra jarri baina hauei, atzera.

Odriozola: Furgonetan lo egiten duten errumaniarrak ere badaude. Arropa bila etorri eta handik aste batera etortzen dira. Garbitzeko ez daukate ezer eta arropak kendu ere egin gabe ibiltzen dira. Beraz, astebetara, berri, arropa bila etortzen dira.

Otegi: Non daude horientzako dutxak? Garbitu ere ez dakit non egiten diren.

Arropak jaso eta behar duenari eman ere egiten dituzue, ezta?

Odriozola: Badago jendea, arropa eman eta halakori ez emateko esaten dizuena.

Gizartea bera sentsibilizatzearen beharra ikusten al duzue?

Odriozola: Arrazistak ez garela esaten da hemen, baina ez garela?

Otegi: Ikutu arte.

Odriozola: Inork ez ditu nahi bere etxe ondoan eduki. Umeetatik hasita gainera. Hainbat ume ezin dira integratu, nahiz eta andereñoak saiatu. Familia batzuk badaude umeekin psikologotatik, ez direlako integratuak sentitzen. Beasainen bi psikologo dauzkagu eta arazo larriren bat ikusten badugu Beasaina bideratzen ditugu.

Otegi: Ordizian badago kasu bat: bi anai dira, 9 eta 7 urtekoak, ijitoak. Ikastolan dabilta. Amak etxeko lanak egiten ezin diete lagundu eta ezin dituzte etxeko lanak egin. Laguntza bila gabiltza, gazteren bat libre ote dagoen beraiei laguntzeko. Baina ez da posible.

Oso ondo bizi gara, etxeko atea itxi eta bakoitzak berea eginez.

Leku batzutan, neguan, gaua pasatzeko tokiak irekitzen dituzte. Goierri horrelakoren baten beharrik ikusten al duzue?

Odriozola: Donostian Hotzaldi etxea badago, urrutik martxora, egunero, etxe bat irekitzen da, gaua pasatzeko. Haruntza bideratzen ditugu. Donostiako Aterpen era jan pilo bat ematen dute. Hemen gehienez egin duguna da, bakarren bat gaizki ikusi eta bi egunetako pentsioa ordaindu.

Otegi: Hori da beste gauza bat, Goierri mailan ez daukagu ezer. Hotz handia egiten duen garaian, kartzela bat ere ez daukagu sikiera han epelean edukitzeko. Nik uste dut tokiren bat bilatuko dela, Goiekitik eta Agenda 21aren barruan. Pasadizoko jende mordo bat pasatzen da hemendik, trenak daukagu eta. Gero jendea beharko da lanerako.

Boluntarioak aipatu dituzue, zer moduz zabiltzate

lanerako jendea aurkitze-ko?

Otegi: Ez da gure arazoak bakarrik, denean gertatzen da berdina.

Odriozola: Jendeak ez du konpromisorik hartu nahi. Caritasen bezala, beste gauza batzuetarako ere ez.

Otegi: Ni orain dela bi urte jubilatuta nintzen CAFen eta hauteskunde sindikalak ziren eta nik badakit nola ibili ziren jendea bilatzeko. Udal hauteskundeetan ere berdin. Nik uste dut gaur egun gizarteak arazo larri bat daukala: oso bizi gara eta ez dugu konpromisorik nahi.

Makina bat euskaldun joan zen garai batean Amerika aldera...

Odriozola: Nik ezagutzen dut Hernaniko bat Amerikara joan zena eta hala esaten omen zuen: bidetxurren ballego Hernanira joateko! Hurra han gelditu zen. Han ere makina bat ibiliko ziren gaizki.

Otegi: Nik ez dakit garai hartan ere gaur adinako papeleorik eskatzen ote zen. Baina gaurko egunean ez daukate batere erraza. Garai hartan Argentinara joan zirenetatik ez dakit inor bueltan etorri zen, bidali egin zutelako. Hemen, gaur, bidaltzen ari gara.

Odrizola: Dauden lekuan lagundu behar zaie gehiago, hemen ere denontzako ez dago eta.

Otegi: Tristeia da, jendeak arropak edukiontzira bota eta gantxo handi batekin ateratzen ikustea, eta basurako edukiontzi barruan sartuta ikustea... Eta okerrera da, ez direla zaharrak! **Kanpotarrei buruz hitz egin dugu orain arte, bai-**



Jose Manuel Otegi, Ordiziako Caritaseko kidea.

na bertakoen beharrak betetzen ere saiatzen zarete.

Odriozola: Izan dira kasuak, momentu konkretu batean arazoak izan dituztelako lagundu eta aurrera atera direnak. Beste batzuk berriz, beste kultura bat daukatelako-edo, ez dute aurrera egin ere egin nahi. Batzuei bizitza guztian laguntzen egon behar da. Horietako batzuk, hemengoak dira, eta ez atzerritarak.

Otegi: Ordizian bertan badaude 50 familiatik gora, oinarritzko errenta kobratzen dutenak eta hori ere tristeia da. Eta jendeak ez daki.

Etxebizitzaren egoerari dagokionean, etxe asko txukundu behar da. Askok igogailurik ez daukate. Nire lagun baten ama 92 urterekin hil da eta 20 urtean egon da etxetik atera gabe,

igogailurik ez zeukalako.

Jendearekin duzuen zuzeneko harremanaren bidez, gizartearen dauden arazoak atzematen dituzue beraz.

Bai, azkenekoa adibidez haxe da: atzerritar batek, urte bete pasatu behar du erroldatzeko eta laguntzak kobratzeko lau hilabete pasatu behar ditu, lehen bi hilabete ziren. Tarte horretan zerekin bizi behar du? Caritasa etortzen dira laguntza eske, Udalak ez diete laguntzarik ematen. Nondik jan behar du jendeak?

Jende askoren galdera izaten da, kalean eskean dagoenari laguntza ematea egokiena ote den.

Odriozola: Hori betikoa da. Kalean zerbait ematen zaie, ogitartekoren bat ere bai udaletxetik...

Otegi: Elizan behin baino

gehiagotan esan izan da ez emateko. Baina, mezatan zaude, kristua zarela ematen du, denak senide zaretela, kanpora atera eta bat eskean ikusita...

Odriozola: Hori norberaren kontzientzian dago. Kalean eskean dabilen jendea, gehienak, gaixoak dira, burutik gaixoak. Horiek ere ezin dira bide bazterrean hiltzen utzi, baina hori beraien soluzionatu behar dute. Igual orain baino gehiago ere etortzen ziren lehenago.

Otegi: Kasu honetan ez dakit zer egin beharko litzatekeen baina atzerritarrekin, gu sentsibilizatu, etorri beharra daukatela. Zer dagoen ondo? Askotan esaten da, ematen den dirua ez dela iristen. Caritasera iristen dena bai, hori seguru, bideak ezagutzen ditugulako. Atzerriar bidali behar bada, Gobernuetara ez da bidaltzen sekula, orduan bai harrapatzen dutela. Mojen edo fraileen bidez egiten da banaketa, jende ezagunaren bidez, bestela ez da iristen.

Ordizian bertan badaude 50 familiatik gora, renta basica kobratzen dutenak



kutxa

Ordiziako 14 gaztek osatzen dute taldea

Burrunbazale txarangaren burrunba



Ordiziako 14 gazte musikariek osatzen dute Burrunbazale txaranga. Herriak eta festak alaitzea du helburu, lagun giroan, gehiena gustatzen

zaiena eginez: musika joz. Urte eta erdi daramate eta momentuz gustura daude egindako lanarekin eta egin dituzten saioekin.

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

ALDANONDO GARAJEA
MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak
Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak
Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Ordizian sortu den lehenengo txaranga da Burrunbazale txaranga. Ordiziako Beti Argi musika bandako musikariak dira taldekide gehienak. Izan ere, bertan sortutako laguntalde batetik sortu baita Burrunbazale txaranga. Bandaren osagarri izatea nahi dute txaranga, bandak harrapatzen ez dituen ekitaldiak bete nahi baitituzte. Iker Gomez de Segura eta Iñigo Aierbe dira Burrunbazale txarangako bi kide eta beraiek zehaztu dutenez, “beste emanaldi mota batzutan jo nahi genuen guk. Laguntalde bat gara eta urtean zehar bandarekin jo ondoren afariren bat edo beste egin izan dugu, bertan hitz egiten hasi eta duela urte erdi txaranga sortu genuen”.

Beti Argi bandaren baitan zegoen “eztabaida” baten garaian sortu zen. “Kointziditu ere egin zuen: bandan bageneukan halako eztabaidatxo bat, zein aktuazio motatan jo behar genuen. Perfil ezberdineko jendea dago, nahiago dutenak banda bezala funtzionatzea; beste batzuk beste aktuazio mota batzuk nahi genituen, halako kalejiran, halako festan... Garai batean Beti Argi musika banda gehiago izan zen fanfarrea, San Ferminetara joaten ziren... Gaur egun bandarentzat pentsaezina izango litzateke. Gu bitartean, desiatzen geunden horrela ari-



Burrunbazaleak

Bonbardinoa: Hirune Tapia.

Bonboa: Olatz Oiarbide.

Flautina: Olatz Oiarbide.

Kaja: Mikel Urretagoiena.

Tronpa: Garazi Tapia.

Tronboiak: Manex Berzosa eta Iker Sanchez.

Tronpetak: Lander Sarasola, Mikel Pascual, Julen Benitez eta Eñaut Perez.

Txapak: Iñigo Aierbe.

Saxoak: David Veliz, Iker Gomez de Segura eta Jon Urteaga.

Rekintoa: Iñigo Aierbe.

tzeko”, zehaztu du Iker Gomez de Segurak. Beti Argi bandaren zuzendaritzak oso egoki ikusi zuen txaranga sortzeko ideia eta erraztasun guztiak eman dizkiete gazteei. Entsaiaitzeko lokala eta musika-tresnak ere uzten dizkiete. Hori bai, lehenetasuna, bandak duela

garbi utzita.

Aldi berean, musikak elkartutako laguntaldea da. “Ze aitzakia bilatu genezakeen denbora gehiago elkarrekin egoteko eta parranda egiteko, ondo pasatzen jarraitzeko. Hori txaranga da”, azpimarratu dute ordiziarrek.

Asteburuan Sopelan izan da dira Burrunbazale txarangakoak. Bertan ateratako argazkiak dira.

Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera: Garazi Tapia, Mikel Pascual, Iker Gomez de Segura, Iñigo Aierbe, Julen Benitez, Iker Sanchez eta Eñaut Perez.

Beheko ilaran: Hirune Tapia, Mikel Urretagoiena, Jon Urteaga eta Olatz Oiarbide.

Argazkian David Veliz, Manex Berzosa eta Lander Sarasola falta dira.

Banda gaztea

13-14 burrunbazale dira taldean. “Hamalagarrena kanpoan dabil eta hemen baldin badago jotzen du”, zehaztu dute.

15-32 urte bitarteko ordiziarrek dira guztiak. “Oso gazteak gara. Banda bera ere oso gaztea da, garai bateko bandekin alderatuta. Asko jaitsi da adina. Ordizian beti banda gaztea egon da”, dio Iker Gomez de Segurak. Harrobi ona daukate gainera: banda bera. “Batek ezin duenean, beti dago norbait laguntzeko prest”, gaineratu dute.

Bandaren lokalean bertan entsaiatzen dute. Gogor entsaiatu eta 2006. urtean bertan hasi ziren lehenengo saioak egiten.

IÑAKI ARIN

aseguruak



943 888 702

Oriako pasealekua, 20

BEASAIN

SOLOZABAL

AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76



SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA

KOL Zka: 649 RPS: 144/02



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



Ezberdina

Zentzu askotan, bandarekin alderatuz, ezberdintasun ugari ditu txarangak. Errepertorioa bera esate baterako, musika estiloa asko aldatu da. “Abesti asko, edozein tabernetan entzun daitezkeenak izaten dira. Txaranga badugu neska bat, Olatz, sekulako lana egiten du, partiturak lortu eta moldatzen. Abesti batzuk, dena den, betikoak hartu ditugu, txaranga batean falta ezin daitezkeenak: Paquito chocolatero, Tolosako inauterietako kantuak...”, zehaztu dute ordiziarrek.

Dena den, errepertorioa moldatzen ari dira etengabe, urtetik urtera abesti berriak egoten baitira modan. “Bide hori ere egiten ari gara. Saiatu beharrean gaude urtero abesti berrien bat edo beste sartzen”, dio Aierbek. “Hiru zutabetan dauzkagu kantuak: Gu txaranga gara eta txarangak beti jotzen dituenak, kalejirak dira

eta horiek beti egon behar dute. Beste abesti batzuk badaude, inoiz modaz pasatzen ez direnak eta beti jo beharrekoak, ‘Chica ye ye’, ‘Final cownt down’, ‘Bailando’...; hirugarren zutabea, modako abestiak daude, urtebeteko epea daukatenak. Iaz, Shakirarena, Madonna-rena jo genituen. Aurten ez ditugu joko. Txarangarekin jotzea ezinezkoa zirela pentsatzen genituen abestiak jotzen ditugu. Hirugarren zutabe hau kadukatu egiten da”, zehaztu Gomez de Segurak.

Janzkerak ere aldaketa nabarmena izan du Gomez

de Segurak dioenez. “Oso ezberdina da gorbatarekin eta trajearekin ateratzea, edo niki laranja eta praka zuriekin ateratzea”.

Eta jakina, ikuslea ere ezberdina da. Parranda giroko saioak egiten dituzte txarangarekin. Jendea dantzan jartzen saiatzen dira. “Jendeak gauza ezberdinak espero ditu banda batetik edo txaranga batetik. Beraz, errepertorioa ere moldatu beharra dago”, dio Iñigo Aierbek.

Zenbait txarangek edo fanfarrek, koreografiak ere egiten dituzte. Ordiziarren kasuan, ez dago horrelako-

rik. “Ez. Hori gehiago lehiaketetarako izaten da”, dio Aierbek. “Garai batean bandak, fanfarre bezala zebilean, lehiaketetan ibiltzen zen eta sari dezente irabazi zituzten eta horretarako koreografiak egiten zituzten”, gaineratu du Gomez de Segurak.

Musikariak

Musikari ikasiak direla eta bandatik datozela antzemaiteen omen zaie Burrunbazaleei, hala esaten diete behintzat. “Gure kasuan musika zainduagoa bezala dago. Beste gauza batzutan okerragoa izango da baina musikan nabaritzen da. Gu oso seguruak gara, partiturak eramaten ditugu, kosta egiten zaigu belarriz jotze hori. Hori bai, inprobisatzeko, mugatuagoak gelditzen gara”, diote Aierbek eta Gomez de Segurak.

Hori bai, txarangen ezaugarrietariko bat den inprobisazioa pixkanaka lan-

Zentzu askotan, bandarekin alderatuz, ezberdintasun ugari ditu txarangak. Errepertorioa bera esate baterako, musika estiloa asko aldatu da.



tzen joan beharko omen dute. “Aurten inauterietan gertatu izan zaigu, taberna batera sartu ginen musika jotzen, tabernako musika kendu zuten eta bukatu genuenean, David Civeraren ‘Que la detengan’ abestia jarri zuten. Iruñako beste txaranga bat zegoen eta abestia entzunez batera, beraiek ere jotzen hasi ziren. Guk behintzat oraindik ezin dugu hori egin. Ea iristen den momentu bat, gu ere hori egiteko gai garena”, aitortu du Aierbek. “Beste baliabide batzuk ere hartu beharrean gaude. Hori urteekin hartuko dugu”, gaineratu du Gomez de Segurak.

Dena den, gustura dau-de urte eta erdian ikasi eta jo dutenarekin. Hasiera batean uste baino saio gehiago izan dituzte. Aurten esate baterako, Donostiako Danborradan eta Tolosako Inauterietan jo dute. “San

Ferminetan ere nahi genuen baina hori zailagoa da. Muturra pixkanaka-pixkanaka sartzen joan behar da”, azpimarratu dute ordiziarrek.

Udan ere badituzte hainbat saio hitzartuta. Asteburuan Sopelan izan dira, Ordiziako jaietan ere joko dute, eta Bizkaiko Areatzan eta Arabako Dulantzin ere lotuta dituzte saioak.

Jendearen harrerarekin harrituta daude Burrunbazaleak. “Gu harrituta gaude, hasieratik harrera ona izan du”, aitortu du Gomez de Segurak.

Hori bai, gero eta gehiago jo nahi dute, gustura sentitzen dira eta lan berrian. Saiotatik ateratako dirua inbertsioetarako erabiltzen dute. “Gure helburua autofinantzaketa da. Bandari eskerrak eman beharrean gaude. Hutsetik hasteko inbertsio handia egin beharko genukeen, musika-tresnak erosteko.



Iñigo Aierbek eta Iker Gomez de Segurak eman digute Burrunbazale txarangaren berri.

Taldeakide batzuen instrumentuak bandarenak dira eta bandaren onespenuk izango bagenu, pentsa. Lokala ere ez genuke eduki, instrumentuak ere ez... Oso ondo ikusi zen bandan txaranga sortzea”, azpimarratu dute Gomez de Segurak eta Aierbek.

Burrunbatik Burrunbazalera

Musika talde baten izena asmatzea zaila izaten dela diote guztiek eta txaranga-

ren kasuan ere kosta egin zen. “Hasieran ‘Burrunba’ izena pentsatu genuen baina erregistratuta omen zegoen eta azkenean ‘Burrunbazale’ pentsatu genuen”, gogoratu dute.

Burrunba hotsez alaitu nahi dituzte kaleak eta horixe da beraien ametsa: “ahalik eta gehien irautea, eta orain arteko giro onarekin jarraitzea. Aktuazio gehixeko izatea ere bai”, zehaztu dute Gomez de Segurak eta Aierbek.

“Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak”



K. Nagusia 35 BEASAIN
☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO
☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA
☎ 943 16 00 44

xetai www.xetai.net
Armairak · Altxariak
Osagarriak

Tel.: 943 88 43 84 Oriamendi, 30 BEASAIN





Gabiria

Andra Mari jaiak

Abuztuak 14, asteartea:

Goiz eta arratsalde: Biribilketa baserriz baserri herriko txistulariekin.

Ondoren: Kontzertua: Descontrol, Milk Shake eta talde gehiago.

Abuztuak 14, astelehena:

Goiz eta arratsalde: Biribilketa baserriz baserri herriko txistulariekin

18:00etan: Suziri eta kanpai jotzea, festei hasiera emanez. Pilota partiduak frontoian.

Ondoren: Herriko gazteen arteko herri kirolak.

22:00etan: Bertsolari jaialdia Parrokiko antzokian.

Ondoren: 'Kupela' taldearekin dantzaldia.

Abuztuak 15, asteazkena: Andre Mari Eguna:

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: XVI. Ormaiztegitik Gabiriarako igoera txirinduz, herritarrentzat.

18:00etan: Goruntz dantza taldeko nagusiek eskainiriko dantza saioa.

Ondoren: III. Patata-tortilla lehiaketa.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketa (izen ematea 20.00etan itxiko da).

Arratsalde eta gauean: 'Beste bat' musika taldearekin dantzaldia eta mozorro dantza goizaldera arte.

02:00etan: Mozorro desfilea eta sari banaketa.

Goizaldera: Baratzuri zopa Osinalde elkartean.

Abuztuak 16, osteguna: San Roke eguna:

11:00etan: Meza nagusia.

Ondoren: Herriko Goruntz dantza taldeko txikienek eskainiriko saioa.

16:30etatik aurrera: umeentzako puzgarri eta parke erraldoia.

17:30etan: Ume jolasak eta mozorro dantza.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketek jarraituko dute, aurreko eguneko araudiekin (izen ematea 20.00etan itxiko da).

19:30ean: Sagardo eta txistor dastaketa.

21:30etan: Koadrilen arteko afaria Ostatu jatetxean.

Gauerditik aurrera, 'Gozategi' musika taldearekin dantzaldia, goizaldera arte.

Atsedenaaldian: Txerri harrapatzea.

Ondoren: Baratzuri zopa denontzat Erbie elkartean.

Abuztuak 17, ostirala: San Roke Txiki eguna:

11:00etan: Meza nagusia, herrian hildakoen alde.

Ondoren: XVI. Tiragoma txapelketa. Bola eta toka herritarrentzat (izen ematea 13.00etan itxiko da). Gazteen-tzat ere saria izango da.

18:00etan: Antzinako ohiturari jarraituz, ardo beltz banaketa herriko zagiardotik. Oharra: ardoa, 18:00etatik 19:00etarako tartean banatuko da.

Arratsalde eta gauean: 'Joselu Anaiaik' musika taldearekin dantzaldia goizaldera arte.

23:00etan: Suziri festa.

Abuztuak 18, larunbata:

17:00etan: Herria txukuntzera etorriko gara eta ondoren, urtero bezala, lanean eta festetako ekintzen antolakuntzan parte hartu dugunok, afari-merienda batekin amaiera emango diegu herriko festei.


BAINUKO OSAGAIK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA



mazda

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma

BEASAIN

Bikar, S. A.



Zerain

Andra Mari jaiak

Abuztuak 13, astelehena:

20:00etan: ohiko gibel-jatea Liztormendi elkartearen

Abuztuak 14, asteartea: Andre Mari bezpera:

11:00etatik aurrera: Umeentzat puzgarriak plazan egun guztian.

13:30ean: Haur-bazkaria.

15:00etan: Jaialdia (mozorroak, antzerkiak...).

16:00etan: Jolasak.

Ondoren: Merienda.

17:00etan: Puzgarriak.

20:00etan: Pregoia, suziriak eta kanpai-bueltakoak festei hasiera emateko.

Segidan: Sagardo-edana eta txekor-jana. Bitartean Koldo Iparragirre trikitilaria.

Gauean: Erromeria.

Abuztuak 15, asteazkena: Andre Mari eguna:

9:00etan: Txistularien goiz-eresia etxez etxe.

11:00etan: Meza Nagusia.

10:00etan: Andre Mari bola txapelketaren hasiera. Izenematea 9:30etik aurrera.

11:45ean: Herriko gaztetxoaren pilota partidak.

12:30ean: Txakolin dastatzea.

17:00etan: Bola txapelketaren bigarren saioa.

18:00etan: Herriko aizkolarien arteko saioa.

19:00etan: 45 urtetik gorakoen III. Dantza txapelketa.

19:30ean: gazteen triki-poteoa, Garikoitz Lizarraga eta Iñaki Larrañaga trikitilariekin.

21:00etan: Gazte-afaria

23:00etan: Erromeriaren hasiera, Elustondo anai-arrebak.

01:00ean: Asto-karrera

Ondoren: Erromeria goizaldera arte.



Abuztuak 16, osteguna: San Roke eguna:

9:00etan: Txistularien goiz-eresia etxez etxe.

10:00etan: San Roke bola txapelketaren hasiera. Izenematea 9:30etik aurrera.

12:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Herriarren arteko herri-kirol saioa, erreleboetan.

17:00etan: Bola txapelketaren azken saioa.

20:30ean: Herri afaria. (Mahaia gordetzeko 6etarako eman behar da izena). Bertsotan: Sebastian Lizaso, Imanol Lazkano, Iker Zubeldia eta Iban Urdangarin.

Ondoren: erromeria Laket taldearekin.

Abuztuak 17, ostirala:

15:00etan: herri txukuntzea.



Beasain

Pirritx eta Porrotx, Chernobilgo Lagunak antolatuta

Irailaren 15ean, Beasaingo Antzizar kiroldegian, Pirritx eta Porrotx pailazoen 'Mari motots' ikuskizuna ikusteko aukera izango da, Chernobilgo Lagunak Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatuta. Sarrerak salgai daude dagoeneko, Beasaingo eta Ordiziako Lirain lurindegietan, 6 euroren truke. Beasaingo Udalak lagundutako ekitaldia da.

Chernobilgo Lagunak Gobernu Kanpoko erakundeak 1996. urtean sortu zen. 1986. urtean gertatu zen istripu nuklearraren ondorioak jasan behar dituzten hurrei laguntzeko helburuz sortu zen.

ETXEBIZITZAK

errentan eman

Nojan apartamentua alokatzen da abuztuan. 635755839.

salgai

Ataun. 60 m², berritua, prezio interesgarria. LAZKAO INMOBILIARIA.

Beasain. Kanpo aldera ematen duen etxebizitza salgai. 3 logela. Berogailua. INMO F3. 943164936 - 629417171.

Beasain. J.M. Iturrioz kalean 60 m²ko pisua salgai. 2 logela. Igogailuarekin. LAZKAO INMOBILIARIA.

Beasain. 4 logelako etxebizitza salgai. Garajea eta igogailua. INMO F3. 943164936 - 629417171.

Beasain. Errekarte kalean, 65 m²ko etxebizitza salgai. 3 logela. Eguzkitsua. Prezio interesgarria. LAZKAO INMOBILIARIA.

Beasain. 3 logela, 2 trasteleku, 2 komun, egongela eta sukaldea. 635717577.

Idiazabal. Eraikuntza berria, 3 logelako azken etxebizitza salgai. 47.000.000. LAZKAO INMOBILIARIA.

Lazkao. Hirigoien kalean, 80 m²ko pisua salgai. 3 logela. Igogailuarekin. Eguzkitsua. LAZKAO INMOBILIARIA.

Lazkao. San Jose kalean, 60 m²ko etxebizitza salgai. 3 logela. Berritua. LAZKAO INMOBILIARIA.

Lazkao. Laister eraikuntza berriak. Apuntatu zaitez. LAZKAO INMOBILIARIA.

Segura. Promozio berriko etxe adosatuak salgai. INMO F3. 943164936 - 629417171.

Goierritarrako iragarki laburrak: hitz bakoitzeko 0,63 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

943 88 96 12

goierritarra@goierrikohitza.info / gh@goierrikohitza.info

NEGOZIOAK

errentan eman

Ordizian drogeri-mertzeria alokatzen da. 943160015.

GALDUTAKO OBJEKTUAK

Argazki makina digitala galdu da Itsasondoko plazan. Aurkituz gero, herriko dendan utzi. 605747333.

GARAJEAK

salgai

Legorreta. Neurri ezberdinetako garajeak. LAZKAO INMOBILIARIA.

ANIMALIAK

salgai

Cocker txakur kumeak salgai. 605772570.

Bost urteko poni arra eta 3 urteko emea salgai. 270 euro. 636908697.

IBILGAILUAK

salgai

Kadet GSi salgai. Egoera onean. 616399322.

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

**Garai berrietarako
ideia berriak**

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

LOINAZARGI

Jose Lasa, 8-10 - LAZKAO
Tel.: 943 164 846 - 627 505 687



- Elektrizitate gaiak
- Argiteria
- Etxeetarako hornikuntzak
- Informatika-gaien salmenta eta konponketa
- Informatika hornikuntzak, sareak
- Telekomunikabideak

ARRIETA

JATE TXEA

**Ezkontzak, jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak**

**☎ 943 88 00 02
OLABERRIA**

BESTELAKOAK

salgai

Inesca Dakota gurdi-denda eta abantzea salgai, egoera onean. 605738622.

LCD 42" Philips telebista salgai. Zozketa batean saritua. Prezio interesgarria. 650806207.

Adria karabana salgai, gehigarri guztiekin. Egoera oso onean. 699002666.

Esolatarako akazi egurra salgai. Luzera, 2 metro. 609411811.

Arropa denda baterako altzariak salgai.

Knaus karabana salgai. 2005 urtekoa. 3 anbertetako.

Gehigarri guztiekin. 620396947.

Etzeko sarrerarako altzaria salgai. Modu onean. 943161345.

Oso egoera onean dauden poliuretanozko leihoak eta egurrezko atea salgai. 678636521.

erosi

Bigarren eskuko trikitixa erosiko nuke. 659844602.

LANA

eskaerak

Beasainen irakasleak behar dira honako gaien inguruko eskolak emateko: enpresaritza gaiak, matematika, fisika, kimika, ingelera eta informatika. Bidali kurrikuluma Ordiziako 61 posta kutxatilara.

Ordiziako kafetegi baterako neska behar da. Astelehenetik larunbatera, goizez edo arratsalde. Lan kontratuarekin. 943882793.

Sukaldaria behar da Joxepa-nen, Zaldibian. 652161335.

Lan eskaintza Goierri turismorako. Euskara derrigorrezkoa. Curriculumak: arazi@arazi-ikt.com.

Aizkorpeko museoetarako langilea behar da.

Kurrikulumak bidali aldabe@aldabe.com-era.

Beasainen fisioterapeuta bat behar da. Bidali kurrikuluma: Goierri Zentrua, Andre Maria kalea, 11-1.B. Beasain. centrogoierri@telefonica.net.

Neska euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxea txukuntzeko, Beasainen, egun osoz. 665709090.

eskaintzak

Neska gazteak, orduka edo lanaldi osoz lan egingo luke umeak edo zaharrak zaintzen, edo garbitzen. 606722876.

Tarot kontsultak. 943766214.

MULTIOPTICAS

KONBINATU LENTILLAK

HILEKOAK + EGUNEKOAK

EGUNEKO 10 LENTE OPARITUKO DIZKIZUGU

HILEKO LENTEEN PACK bat erostean

95
€



ETA GAINERA,
WEBCAM HAU
OPARITUKO DIZUGU



EZIN HOBEAK DIRELAKO NOIZBEHINKA ERABILTZEKO, ADIBIDEZ, ASTE BUKAERATAN, KIROLA EGITEKO, OPORRETAN...

J. Carlos Guerra 1

Tel. 943 79 29 95

ARRASATE

Ibargai 16

Tel. 943 76 15 75

BERGARA

C/ Nueva 15 - GROS

Tel. 943 32 66 49

DONOSTIA

Bidebarrieta 2

Tel. 943 20 05 22

EIBAR

Koldo Mitxelena, 7

Tel. 943 51 78 11

ERRETERIA

Mendibil M. G.

Tel. 943 63 99 01

IRUN

J.M. Barandiaran Enp.


Tel. 943 88 99 88

ORDIZIA

San Frantzisko 23

Tel. 943 69 84 70

TOLOSA



Ormaiztegiko luistarrak 1930-06-21ean

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Roman Oiarbide, ezezaguna, Joxe Maritxalar, Joxe Txiki (Manzisor sen-diarekin bizi zen), Nikolas Berasategi (Kaxeta), Andres Kastillo, Berasategi (Arizmendi), Frantzisko Antia (Berroeta), Irazusta (Arizmendi), Luis Ezkurdia eta Celestino Goia.

Erdiko ilaran: Juan Mujika (Iraegi), Joxe Gaztañaga, Joxe Iurrita (Sosoagazabal), Pako Borde, Tomas Mujika (Iraegi), Ramon Zabala (Errota), Marzelino Mendizabal, Pepe Goia, Joxe Antonio Antia (Berroeta), Juanito Iturbe, Inazio Intxausti (Karterone), Migel Baron (Aritzalde), Juan Manuel Mujika (Etxaburu), Joxe Antonio Iurrita (Mendizabal), Bernardo Gurrutxaga (Zesterone), Sagastiberri baserrikoa, Joxe Mari Iurrita (Sosoagazabal), Juan Muguruza (maisua), Prudentzio Gaztañaga, Joxe Kastillo, Matias Apaolaza (Lezeta), Juanito Manzisor, Joxe Cruz Urkiola (Agerre) eta Floro Irizar.

Beheko ilaran: Joxe Barrenetxea, Modesto Kanpos, Joxeba Ezkurdia, Eduardo Etxezarreta (Gorri), Marzelino Mujika, German Kanpos, Sabino Azurmendi, Alberto Irizar, Joxe Kanpos Elozegi, Pedro Igarzabal (apaiza), Aita Agirre, Joxe Kanpos (apaiza), Guillermo Elorza, Meliton Lazaro (Lapurretxe), Joxe Domingo Iurrita (Mendizabal), Narziso Antia (Berroeta), Joxe Migel Irizar, Joxe Mari Iurrita (Mendizabal), Antoneneko morroia eta Pedro Iza Mendia.

Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

Joan Iturralde, 5 solairuarte, Beasain
www.ikaskide.net
943 160 120
685 722 403
675 006 462

ESKOLA LAGUNTZA:

Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, moduluak

UNIBERTSITATE MAILA:

Enpresaritza, Injeniaritza, Kimika eta Fisika

ERREKUPERAZIOAK

IKASKETA TEKNIKAK

INFORMATIKA, MEKANOGRAFIA

INGELERA IKASTARO TRINKOIA:

Goizez eta arratsalde / Maila guztiak / PET, First Certificate, Advanced

**UDA
2007**

**2007-2008
matrikula zabalik**

VOLVO



ANZIZAR, S. A.



**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48



Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



ERAKUSKETA:

Lorategiko eta terrazako altzariak, kolore ezberdinetako aluminio lakatuan

- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
toldosagustin.com

e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

LAZKAO





Orain Olaberrian

Toyota kontzesionario berria!

EuskoAuto

Karobi industrialdea z/g
Olaberria
Tel.: 943 80 59 26



TOYOTA

www.euskoauto.toyota.es